

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)


2009-01-11

Antologiak eta desorekak

BEÑAT SARASOLA

Azken urteotan egon den euskal gatazkaren presentzia gure literaturan aztertzeko jakin-mina ondoren, pentsatzekoa zen lehenago edo geroago gai honen inguruko antologia bat publikatzea. Euskal gatazka eta euskal literaturaren arteko analisi hauetan, gainera, protagonismo handi samarra hartu du ipuinaren generoak eztabaidagai gisa. Jokin Muñozen ideia hori, ipuinak posizionamendu ideologiko argi bat hartzea saihesten laguntzen duelakoa, eta Iban Zalduaren erantzuna (*Lau kontsiderazio euskal ipuingintzaren inguruan*) horren adibideetako bat da. Mikel Sotok apailatu eta Txalapartak atera berri duen *Haginetako mina* hau, bada, euskal literaturan gatazka jorratzen duten ipuinen antologia da («Ipuinak hautatzeko irizpide nagusia izan da lanen gai zentraletako bat konbentzionalki euskal gatazka deitzen dugun hori izatea» dio hitzaurrean), eta hala, eztabaida hauek sakontzeko eta ikerketa lan berriak egiteko erreferentzia interesgarria da.

Ipuinok kronologikoki ordenatuak ditu Sotok, argitaratze dataren arabera. Anjel Lertxundiren *Hausturak*-etik, 1984an argitaratutakoa, Joseba Sarrionandiaren *Xakea* arte, 2007an plazaratua, nahiz eta, ironikoki-edo, 1982an idatzia izan zen. Euskal Gatazka delakoaren zerizan patetikoaren inguruan dezente esaten du datu honek. 1982an idatzitako ipuina ez da batere gaizki zahartu eta hogeita bost urte beranduago argitaratu daiteke arazorik gabe.

Askotarikoak dira ipuinen luzera, estrategia narratiboak, tonuak eta abarrekoak, eta Sotok, oro har, aurrerago zehaztuko ditudan eragozpenak salbu, liburu aberatsa ondu duela esango nuke. Esate baterako, hor dago narrazioaren teknikaren ikuspegitik paregabea den Mikel Antzaren *Odolaren usaina*, euskal gatazka beste gatazka sozialekin (drogekin) lotzen duen Edorta Jimenezen *Atoiontzia*, eta zolitasunez beteriko Luis Fernandezen ipuin satiriko bikain hori, *Kontaktua*, atentzio gehien eman didatenean artean hiru hautatzearen. Bestetik, ipuin batzuek gatazkaz mintzo garenean eskuarki ahortzi egiten ditugun zenbait aspektu eta biktima gogorarazten dizkigute. Ipuin hauetako protagonistak ez dira ez heroiak ezta martirrak ere. Horietako bat da Xabier Montoiaren *Irapuato*. *Makurkeria nonahi*, iheslarien (zentzurik literalenean) errealtatea mahai gainera eramatea diguna; eta beste bat Jokin Muñozen *Isiluneak*, ETako militanteen senitartekoen oinazea azaleratzen duena (eta bidenabar, 1974ko Gabriel Arestiren *Josepa Mendizabal Zaldibian* poema gogoraziti).

Baina antologiaren aberastasunari dagokion eragozpenen bat agindu dut gorago, eta iritsi da nire zorra kitatzeko garaia: ipuin (ia) guztiek, ezker abertzaleko biktimen oinazean jartzen dute beren arreta. Min hau, arestian aipatu bezala, prisma askotatik agertzen da, eta horixe da, nire iritziz, antologia honen bertuteetako bat. Baina ETaren bortizkeriak eragindako oinazea esplicituki azaltzen diren ipuin bakarrak Patxi Zubizarretaren *Bihar ez diot amari hutsik egingo* eta Harkaitz Canoren *Hipotesiak gordinkeriaz* dira. Baike, idiota samarra da kalkulu matematikoak egiten ibiltzea politikoki zuzena litzatekeen oreka ezinezko bat mantentzearen, baina uste dut «euskal gatazka» erabili ondoren, termino honen esanahi distantziakidearen tamainako antologia distantziakidea espero zitekeela, borroka armatuak eragindako minaren presentzia handiagoarekin. Hitzaurrean Sotok dion bezala, antologia inpartzialak egiteko posibilitatearen inguruko ameskeriak aspaldi joan zitzaizkigun (areago halako gai baten aurrean), baina kasu honetan desoreka handiegia dela begitandu zait niri.

'HAGINETAKO MINA'
Apailatzailea: Mikel Soto.

Argitaletxea. Txalaparta.

Urtea. 2008.